

**ERTIBIL BIZKAIA 2023**

uztailak 14 - irailak 17

**GETXO**  
**PUNTA BEGOÑA**  
urriak 16 - azaroak 5**SESTAO**  
**ERAKUSKETA ARETOA**  
azaroak 6 - 17**BALMASEDA**  
**HORCASITAS JAUREGIA**  
azaroak 20 - abenduak 17**BARAKALDO**  
**UDAL ERAKUSKETA ARETOA**  
abenduak 18 - urtarrilak 5**Rekalde**Alameda Recalde, 30. 48009 Bilbao  
Tel. +34 94 406 85 32  
www.salarekalde.bizkaia.eus**1.saria****JON ANDER GARCÍA** (Santurtzi, Bizkaia, 1989)  
*suff*

Jon Ander García margolaria da, eta paper, oihal eta pintura akrilikorekin egiten du lan, hala badagokio, material hori "tiro" erabateko botere absolutua gauzatzea galarazteko. *suff* lanean, hainbat oihalen zatiak daude, eta horietan artistaren lanaren ezaugarri diren formak eta ikur elementuak agertzen dira. Forma horiek batzuetan irakurketa figuratiboa ahalbidetzen dute.

**2.saria****MAIDER ALDASORO DIAZ** (Mexiko, 1992)  
*shirt off nere back*

Lan irabazle hau Aldasororen soldatzeko gogoengatik jai zen. Burdinezko xafra gaineko soldaduraren teknikarekin egina, pieza handia eta astuna da, Aldasorok erabiltzen dituen erreminta mekanikoen ebakiak eta aztarnak ditu, baina aldi berean haren marrazkia oso arina eta delikatu da.

**3.saria****IBAI MADARIAGA SAGASTIZABAL** (Mallabia, Bizkaia, 1994)  
**MIEL OYARZABAL** (Durango, Bizkaia, 1994)

Ibai Madariaga, arkitektoak, eta Miel Oyarzabal, artista plastikoak konbentzio guztietatik ihes egiteko joera dute, arrotzerian adibidez, ohikoak diren industria materialak eta tresnak erabiltzen dituzte, ekonomia materialarekin artean garatuz. Eskultura honek sotitasunez betetzen du espazioa eta ikuslearen konplizitate bisuala behar du dituen jolas bolumentriko ugariak aurkitzeko.

**Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako ERTIBIL BIZKAIA arte bisualen**

erakusketa ibiltaria Bilboko Rekalde Aretoan hasten da eta, Getxo, Sestao eta Balmasedako udalerrietatik igaro ondoren, 2024eko urtarrilaren Sean amaituko da Barakaldoko udal erakusketa aretoan.

Artista hauek saritu dituzte ERTIBIL BIZKAIA 2023an: Jon Ander García, Maider Aldasoro Diaz eta Ibai Madariaga Sagastizabal & Miel Oyarzabal. Horiekin batera, honako hauek hautatu dituzte: Imanol Abad Martínez & Imanol Expósito Delgado, Daniel Alegrete, Izaskun Araluzea Itza, Alejandro González Osés, Julene Gregorio Uriarte, Leire Lacunza Miranda, Ibon Landa Amutxategi, Idoia Leache Olague, Claudia Rebeca Lorenzo, Julen Martin Zaballa, Lugha Mathews Bouchard, Estela Miguel, Javier Ozcoidi, Ander Sagastiberri Fernández eta Amaia Santamaria Andres.

1983an lehen edizioa egin zenetik, ERTIBILen helburu nagusia beti izan da Bizkaian sormen-lana egiten duten eta agertzen ari diren artista berrak bultzatzea eta sustatzea.

**Epimahaia** honako hauek osatu dute: Alazne Zubizarreta, Ertibil 2022 irabazi zuen artista; Naia del Castillo, artista eta UPV/EHUko Arte Ederretako irakaslea; Aimar Arriola Olabarria arte komisarioa; eta Miriam Alzuri Milanes, Bilboko Arte Ederren Museoeko kontserbatzailea eta erakusketaren harira argitaratutako liburuiko testuen egilea.

Aurtengo edizioan, Rekalde Aretoak **Euskal Herriko**

**Unibertsitateko** Kultura Ondasunen Kontsebazio eta Zaharberritze Graduarrekin **elkarlanean** jarraitu du, Katrin Alberdi irakaslearen *Ondarearen Kudeaketa, Erakusketa eta Erregistrazio* ikasleen parte-hartzearen bidez. Olaia Salinas, Lucia Strachan eta Laura Vicentek modu aktiboan lagundu dute ERTIBIL BIZKAIA 2023ko edizioan, proiektuari ideia berrak ekarri.

## AUKERATUTAKO ARTISTAK

**IMANOL ABAD MARTÍNEZ** (Bilbao, 2000)

**IMANOL EXPÓSITO DELGADO** (Barakaldo, Bizkaia, 2000)

*Criaturas del lago* Abaden eta Expósitoen lehen fikziozko film luzea da. "Bilbo ez den Bilbon" girotua, istorioa trabesti baten desagerpenean zentratzen da; zeinaren inguruan tokiko eszena artistiko independente, alternatibo eta *underground* berezi batek orbitatzen duen.

**DANIEL ALEGRETE** (Madrid, 1993)

*Run for Your Pixels* lanean, Alegretek beldurrezko zinemaren bidez ikus-entzunezkoen industriak garai bakoitzeko beldurrak eta izuak nola bideratu dituen aztertzen du. Alegreteren lanak film horietan ohikoa den sekuentzia zehatz bat berreraikitzen du: psikopataren eta bizirik dirauen neskaren arteko azken jazarpena, erasoak amaierarik ez balu bezala eta pertsonaiak ekintza bera behin eta berriz errepikatzen kondematuta baleude bezala.

**IZASKUN ARALUZZEA ITZA** (Bilbao, 1994)

Araluzek paper gaineko formatu handiko marrazkia lantzen du. Bere argitasun formalagatik nabarmentzen den pieza honetan, itxura naturalen sugestioak ez du espazioari eta mugimenduari buruzko hausnarketa abstraktua estaltzen.

**ALEJANDRO GONZÁLEZ OSÉS** (Santander, 1990)

Olio, grafito, silikonaz eta zurezko arrastoz MDFko taularen gainean egindako lanak osagai bakoitza zer den nabarmentzen duten ertzak bereizten eta mugatzen dituzten lerroak osatzen ditu. Horrela, alde batean kokatuko bagina bezala, eta ez koadroaren aurrean, nolabaiteko tentsioa sortzen da espazioarekin, objektu gisa duen konposizioa hobeto hautemateko.

**JULENE GREGORIO URIARTE** (Gautegiz-Arteaga, Bizkaia, 1998)

Buztin erregogorrez egindako piezek, urdin bizi eta okreen degradazio sotiletan esmaltatuak, Erdi Aroko gaztelu zahar hotz eta ilunetara garamatzate, tximinia eta sutegiekin argitzen zirenak.

**LEIRE LACUNZA MIRANDA** (Donostia-San Sebastián, 1996)

*A contraluz* lanean Lacunzak hodi fluoreszenteekin eta geruzaz geruza gainjarritako binilo itsasgarrizko xaflekin argi-piezak egiten ditu. Xafla horiek artistak forma uhinduetan eta irregularretan, edergarrietan eta apaingarrietan ebakitzen ditu, argi-hodiei urregintzako piezen itxura emanaz.

**IBON LANDA AMUTXATEGI** (Vitoria-Gasteiz, 1994)

Hautatutako obran, Landak eskultura-lan baterantz egiten du urratsa, pintura akrilikoaren lehertasunagatik zakartutako maindireen oihalak erabili baititu, eta geruzatan banatu ditu, gubia eta trintxa batek egindako ebakidura zorrotzak egiteko, trokelatuak, ertz ebakiak eta ebakidurak sortuz.

**IDOIA LEACHE OLAGÜE** (Iruña-Pamplona, 1999)

Izen bereko bakarkako erakusketatik, Leachek trafiko-seinaleetatik ateratako altzairu galbanizatuzko bi pieza aurkezten ditu, irudia/zeinua erlazioa ikertzeko, bere esku-hartzearen bidez.

**CLAUDIA REBECA LORENZO** (Logroño, 1988)

Haren proiektuei buruz esan ohi da eskultura jardunari berari buruzko kontu materialak jorratzen dituela, alderdi pertsonalekin, biografikoekin, literaturarekin eta poesiarekin interesarekin edo hitzezko hizkuntzarekin kezkarakin nahasten direnak. Loreak eta natura haren obran errepikatzen diren beste elementu gisa. Artistak eskuragarri zituen materialak erabili ditu, "errealitate hurbilenaren hondarrak", ezinbestean haren lan prozesu guztiari eragiteko joera dutenak.

**JULEN MARTIN ZABALLA** (Areta-Laudio, Araba, 2001)

Lan honetan, Julen Martin eskaiolarekin esperimentatuz une bat, keinu bat, forma bat izozten saiatzen da. *Tempus fugit* obrako eskulturak lurraren gainean pausatzen dira zuzenean, landare forma apetatsuak bailiran, zeinak, euren balizko loraldian, edertasunaz hitz egiten baitute, baina baita hilkortasunaz ere.

**LUGHA MATHEWS BOUCHARD** (Dublín, 1998)

Pintura honetan, porruen eta beste landare batzuen irudi luzangak gainazal lau baten gainean daude jarrita, agian mahai baten edo ebakitzeko ohol baten gainean. Sukalde teknikekin paraleloan, *Porrusalda* lanean eskura dituen elementuekin lan egiten ikusten dugu artista, osagaiak ahalik eta gehien murriztuz eta sinplifikatuz, kolorea barne.

**ESTELA MIGUEL** (Villarta, Cuenca, 1992)

Miguelen "mintzak" esan ohi die material horiei. Ehun itxurakoak dira, eta plastikoaren edo paperaren antzeko ehundurak dituzte. *vitamina, pero*. Lana pieza sail baten parte da. Pieza horiei, hain zuzen ere, "pod" (kapsula) esaten die. Fruta moldeak –melo bat, kasu honetan– erabiliz egiten ditu, erretxina akrilikoetan erreproduzita eta, ondoren, berak sortutako eta jositako material bioplastiko horiekin janzten edo estaltzen ditu.

**JAVIER OZCOIDI** (Iruña-Pamplona, 1999)

Denborarekin interesa eta narrazio sekuentziala *Carlos y Carlos* lanean agertzen da, ordenagailuko pantailari ateratako bi argazki osatutako diptikoan. Antzekoak izan arren, irudiak bi denbora-sekuentziei dagozkie. Aldaketa horrek itxuraz egonkorra den irudia aktibatzen du eta gertaera bat sortzen du.

**ANDER SAGASTIBERRI FERNÁNDEZ** (Bilbao, 1988)

*Hover muxu* bi konposizio-gune desberdin dituen triptiko bat da, bata bertikala, lurraren arrasean dagoena, eta bestea horizontala, gainean dagoena. Modu konpositiboan esanda, espazio narraitibo desberdinetan kokatzen dira: ezkerrekoak oihalaren azalera osoa hartzen du, eta lehen termino batean ikusten dugu; eskuinekoa, berriz, ia zatirik ikusten ez dugun espazio batean dago.

**AMAIA SANTAMARIA ANDRES** (Bergara, Gipuzkoa, 1992)

Errealitatea bikoizten duten eguneroko elementuek, ispiluek, besteak beste, niaren identitatea eta bertan islatuta ikusten dugunaren baldintza gogora ekartzen dituzte. Horrela, idealki egiazkoaren berri ematera bideratuta egon arren, ispilua, aitzitik, irudikapen-azalera bat da, non erreala, sinbolikoa eta irudipenezkoa gurutzatzen diren. Errealitatea eta irudikapena.

(\* **Miriam Alzuri Milanése** Ertibil Bizkaia 2023ko katalogoan idatzitako testuaren laburpenak.